

**Gentrifikazio turistikoa eta kultur minorizazioa**  
***Libertimenduak eta euskararen aktibismo berriak Performantziaren***  
**Aroan**

Jardunaldi honek gentrifikazio turistikoa eta kultur minorizazioa biltzen ditu. Bi prozesu horiek nola gurutzatzen diren ulertu nahi dugu, **euskararen eremuan turistifikazioak eragiten dituen ondorio soziolinguistikoetan arreta jarrita.**

Gai horri, baina, performantzia-praktiken eskutik eta begiradatik heldu nahi diogu, eta bide batez gogoetagai bihurtu euskal soziolinguistikan performantzia eta sormen-praktikak aztertzeak egun eduki dezakeen garrantzia. Hizkuntza minorizatuak Performantziaren Aroan daudela esaten dute soziolinguistikaren alorreko hainbat lanek, eta hor aurkitu behar direla hizkuntza-aktibismorako bide berriak. Performantziak erreflexio-marko bat eskaintzen du, hizkuntzaren eta kulturaren inguruko kezka eta aldarrikapenak diskurtsoetan artikulatzeko aukera. Jardunaldian performantzia ekintza metalinguistiko eta metakultural gisa aztertuko dugu, eta **marko horretan euskararen inguruko aktibismoak bilatu dituen bide berrietan sakondu nahi dugu.**

Jardunaldian hainbat adibide performatibo aztertuko dira, denak ere azken hamarkada hauetan zabaldu diren libertimenduen inguruan ardaztuak. Libertimendua jatorriz Baxenabarrekoa den inauteri erritual tradizional bat da, azken urteotan Euskal Herriko beste toki berri batzuetan berrasmatzen ari dena. Libertimenduak gazteek antolatzen dituzte nagusiki eta gazte komunitate zenbaiti ahotsa ematen die. Libertimendu bakoitzak bere gogoeta propioak ditu, baina guztiek barne hartzen dituzte euskal hizkuntza eta kulturari buruzko aldarrikapenak bestelako kezka sozial eta politikoeekin batera. Jardunaldian, libertimenduak aitzakia hartuta, **kezka sozial eta politiko horietaz pentsatu nahi dugu. Zein dira lotura ideologiko horiek, euskara bestelako zein kezka sozialekin lotzen da?**

Libertimenduetan, esperientzia performatibo osoak euskal hizkuntzaren eta kulturaren inguruko tentsioak eta botere-borrokak uzten ditu agerian. Baina, aldi berean, libertimenduak eurak kezka sozial eta politiko horiei erantzuteko tresna gisa ikusten ditu komunitateak. Jardunaldi honetan **bereziki** aztertu nahi dugu **Añorgako Dibertimenduaren komunitateak nola baliatzen dituen euskal kultur kapitala eta bere kapital soziala Donostiatik datorkien gentrifikazio kultural eta sozialari aurre egiteko.**

Jardunaldiaren formatuari dagokionez, eredu parte-hartzaile bati eman nahi diogu garrantzia. Unibertsitateetik gizartera eta gizartetik unibertsitateara doazen norabide gurutzaketan, funtsezko ikusten dugu

tokian tokiko libertimenduetako komunitateei ahotsa ematea. Asmo horrekin, jardunaldiak eta batez ere zenbait saiok deboluzio-ariketa baten bidez egingo dira eta bertan Añorgako Dibertimenduaren, Hazparneko Libertimenduaren eta Iruñeko Iruinkokoaren parte-hartzaileak bilduko ditugu haien arteko eztabaida sustatzeko eta ulertzeko **zer eskaintzen duen libertimendua bezalako erritual batek euskara eta euskal kulturaren mantentzean eta nola lotzen den hori bestelako aldarrikapen sozialekin.**

Jardunaldiaren egitura:

### **MIRAMAR JAUREGIAN (goizez)**

09:00-09:30

Jardunaldiaren irekiera: Agurtzane Elordui eta Jokin Aiestaran: Turistifikazioa eta kultur minorizazioa performantziaren aroan

09:00-10:45

Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra): Donostiako turistifikazioa eta euskara

10:45-11:15 Atsedenaldia

11:15-12:00

Jokin Aiestaran eta Lamia Filali-Mouncef: Añorgako Dibertimenduaz

12:00-12:45

Samara Velte eta Iñaki Sagardoy: Euskararen fetitxizazioa Iruinkokoan

12:45-13:30

Agurtzane Elordui eta Oroitz Jauregi: Hazparneko Libertimenduaz

### **AÑORGAN (arratsaldez)**

14:00-16:30 Bazkaria

16:30-18:00

Beñat Gaztelumendi eta Gari Otamendi: Añorgako Dibertimenduaz

18:00-19:30

Mahai-ingurua: Añorgako Dibertimenduaren, Hazparneko Libertimenduaren eta Iruñeko Iruinkokoaren parte-hartzaileak

19:30-20:00

Jardunaldiaren itxiera (bertsoak)